

KOSTUAK

Atal hau garatzeko orduan bi azpiatal bereizi ditugu, alde batetik hasierako inbertsioa eta gero martxan dagoenean jasango ditugun kostuak identifikatu dira.

HASIERAKO INBERTSIOA: Gure negozioa martxan jartzeko beharrezkoak ditugu hasierako kostu batzuk. Kostu osoaren kopuru garrantzitsuena lur sailaren erosketa eta honetan instalazioaren egokitzapenari dagokio.

Unbe auzoan kokatuta dagoen 400m²ko lursail batean eraikiko dugu parkea, bertara bezeroak kotxez edo oinez gerturatu ahalko dira. Instalazioa Construcciones Riol SL enpresarekin eraikiko dugu, esperientzia handiko enpresa baita.

Txakurren ur-parkea martxan jartzeko beharrezko KOSTUAK hurrengo taulan adierazi ditugunak izango dira:

Lursailaren erosketa	120.000€
Instalazioak eraiki	200.000€
Zergak eta tasak	1.500€
Materiala	2.500€
Bulegoaren egokitzapena (mahaiak, ordenagailua, bestelako materiala)	4.000€
GUZTIRA	328.000€

NEGOZIOA MARTXAN DAGOENEAN

• KOSTU FINKOAK

Aseguru bat	1000€/urtero
Mantenua (belar mozketa, uraren garbiketa, instalazioen garbiketa...)	600€/hilabetero
Langileak (saltzailea, soroslea, garbitzailea)	6000€/hilabetero
Marketing enpresa	100€/hilabetero
Albaitaria	2000€/hilabetero



Bazkideen kotizazioa	2000€/hilabetero
----------------------	------------------

- **KOSTU ALDAKORRAK** (kontsumoaren arabera kostu hauek aldatzen direnez, estimazioak dira)

Hemen kosturik nagusiena ur parkean izango den uraren gastua dugu, zirkuitoko ura berrizteko sistemaren arabera kontsumo jasangarri bat izateko instalazioa ezarri da baina parkearen ur espazio eskaintza handia denez, kostua ere horrela izango da.

Hornidurak (ura, argia...)	1000€/hilabetero
Materiala (apurtzen doazen heinean berriztu beharko dira)	1000€/hilabetero
Salgaiak eta merchandising	300€/hilabetero
Animalientzako janaria	400€/hilabetero
Garbiketa produktuak	200€/hilabetero

